



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2022ko EKAINAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko ekainaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Concepcion Soria Legua ,
Shrabani Aranzabe Pita, eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA:  Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ **2022ko maiatzaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin hitzarmena, Enplegurako Lanbide heziketarako irakaskuntzan Alkizako udalean praktikak egiteko.**
5. **Alkizako udal langileen opor egutegiaren onespena.**
6. **Alkizako Plan Orokorren berraztertze prozesuan, aurrerakin dokumentua jendaurrean jartzeko esleipena.**
7. **Beste batzuk**
8. **Moziok, erreguak eta galderak.**

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2022ko maiatzaren 31an ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren



ALKIZAKO UDALA

bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 30/2022tik 38/2022 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ORANGE	269,32
ORANGE	35,27
INFORMATICA GUIPUZCOANA	208,12
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	413,82
BABESA SUZAI	157,30
GUREAK	1,09
QUISER	26,08
EBA ERKIZIA	989,42
KUKU LORE	160,83
ID WASTE	834,90
GOIENER	313,77
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	21,20
GASOLEOS ALKORTA	26,30
INFORMATICA GUIPUZCOANA	147,00
INFOBIBLIOTECAS	150,50
XALTO TA BRINKO	305,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	311,58
IZADI LABORATEGIA	152,94
COPY-TEC	5,61
RECAMBIOS IBARRA	28,60
URAZALA ARTE ETA NATURA ELKARTEA	200,00
ORANGE	35,27
GOIENER	336,24



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	53,93
GOIENER	954,15
GOIENER	75,15
GOIENER	12,20
GOIENER	216,05
GOIENER	167,94
GOIENER	612,45
GOIENER	389,88
GOIENER	411,33
GOIENER	569,42
GOIENER	19,80
GOIENER	66,95
GOIENER	838,94
GOIENER	12,71
GOIENER	40,55
QUISER	800,15
INFORMATICA GUIPUZCOANA	147,00
CALPARSORO INDUSTRIAL	184,43
LYRECO	550,49
ARGITU ASESORES	176,90
CORREOS	5,23
MAQUELSA	85,64
OSCAR GALINDO	133,10
SOLRED	154,09
NORTEGAS	283,08
NORTEGAS	312,79
NORTEGAS	316,66
ICETEC	199,65
ARTELATZ INGURUMEN ZERBITZUAK	3.546,51
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	260,00
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	185,00
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	185,00
BEOTIBAR	309,00
EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK	1,21
BEOTIBAR	121,69
BEPTOBAR	86,51
OBBTKN	31,80
UNAI UGARTEMENDIA	726,00



ALKIZAKO UDALA

DEKOARBERAS	12,96
ORANGE	366,91
GAZTEZULO	30
PREMANK	668,84
PREMANK	668,84
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	306,00
OSCAR GALINDO	133,10
DISTOPIA ELEKTROTXARANGA	850,00
EÑECTROCODAD ZIZURKIL	776,00
MERKAOIL	1.092,28
CALPARSORO INDUSTRIAL	31,02
MAIZPIDE ELKARTE KULTURALA	1.600,00
SOLRED	128,06
COMERCIAL SANVI	22,65
ARGITU ASESORES	17690
EKILOR	2.299,00
DIONISIO ORMAZABAL	27,78
EBA ERKIZIA	1.445,64
CORREOS	5,14
ALETEGO	22,20
MAQUELSA	68,18
QUISER	270,17
PETER ALBRECHT	17.847,26
GOIENER	22,41
GOIENER	54,53
GOIENER	55,01
GOIENER	16,46
GOIENER	399,31
I-SAI ACCESOS Y RESENCIA	31,10
GOIENER	197,03
GOIENER	16,59
GOIENER	214,20
GOIENER	68,23
GOIENER	361,17
GOIENER	162,65
GOIENER	501,64
GOIENER	204,79
GOIENER	1.056,23



ALKIZAKO UDALA

ENEKO SALABERRIA	34,95
RECAMBIOS IBARRA	13,55
ORANGE	35,27
GOIENER	14,22
GOIENER	371,06
TOLOMENDI	960,00
IZFE	2.010,29
IZFE	43,56
IZFE	38,66
IZFE	9,51
CONSULTORES DE GESTION PUBLICA	1.089,00
CALCOSA	36,30
GILBE	134,48
JOSE MANUEL ERASUN	35,10
ANTXON IRAOLA	39,95
ORANGE	262,00
HARGOI	272,25

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **55.993,97** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREKIN HITZARMENA, ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETARAKO IRAKASKUNTZAN ALKIZAKO UDALEAN PRAKTIKAK EGITEKO

Ikusirik Lanbide Euskal enplegu zerbitzuak Alkizako Udalari eskaini diola pertsona bat lanekoak ez diren praktikak egiteko. Alkizako udala interesa azaldu duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Lanbide Euskal enplegu zerbitzuarekin hitzarmena onestea, enplegurako lanbide heziketarako irakaskuntzak Alkizako udalean praktikak egiteko.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA: Aipaturiko hitzarmena sina dezan, Alkizako alkatea den Inaki Irazabalbeitia ahalmentzea.

BOSTGARREN PUNTUA
ALKIZAKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIAREN ONESPENA

Ikusirik Udal langileek aurkeztu dituztela 2022 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileek aurkezturiko 2022 urterako opor egutegien onespena.

SEIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO PLAN OROKORRAREN BERRAZTERTZE PROZESUAN, AURRERAKIN DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEKO ESLEIPENA

Aurrerakin dokumentua onartzeak barne-ondorio administratiboak izango ditu, dagokion hirigintza-plana prestatzeko, eta, kasu honetan, nahitaezkoa da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitea eta onartzea proposatzen baita, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 87. artikuluekin bat etorritz.

Ikuspegi formaletik, Udal honek Aurrerakin dokumentua onartzeko eskumena du, baita Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako eta behin-behineko onarpenarena ere, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 87, 90 eta 91. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Onartu ondoren, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, jendaurrean jarri beharko da gutxienez bi hilabeteko epean. Epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izango dira, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiena edo zirkulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan jarri beharreko iragarkien bidez. Aurrerakin dokumentua ondoko udalei igorriko zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, proposatutako egiturazko antolamenduaren oinarrizko alderdiei buruz.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Alkizako udal mugapeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakin dokumentua onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren hasierako agiria onartzea, tresna horren prestakuntzan ingurumen-alderdiak txertatzeko eta planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko eskumena duen ingurumen-organoari bidaltzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau, onartutako Aurrerakin dokumentuarekin batera, Udal Plangintzako Aholku Batzordeari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta txostena egin dezan, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bai eta inguruko udalei ere, jakinaren gainean egon daitezten, eta erabakia jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko iragarkien bidez, bi hilabeteko epean interesatuek iradokizunak eta alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

7.1. TOLOMENDIRI 2022 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2022eko otsailaren 23an ospatutako Batzar Orokorrean 2022 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2022 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 2.525,62 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez



ALKIZAKO UDALA

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkartea-Tolomendiri 2.525,62 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2022 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

8.1. UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA

Ondoren, udal taldeak aurkezturiko mozioa irakurtzen da, non ondorengo dioen:

“Erbestea etengabeko konstantea izan da gizateriaren historian, baita gurean ere: gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Irmoki sinesten dugu errefuxiatuen eskubideetan, eta harrera integrala eta duina emateko konpromisoa hartzen dugu.

Orain, erbestealdiaren eta aterpearen bideak irauli egin dira. Gure erbestearen memoriak laguntzen digu gaur egun gerratik, indarkeria politikotik, genero-jazarpenetik, ingurumenaren degradaziotik eta bizitzaren prekarizaziotik ihesi doazen pertsonekin enpatia sentitzen.

Azken urteotan, gora egin du Euskadira nazioarteko babes bila datozen pertsonen kopuruak, bai eta Europako beste herrialde batzuetara bidean gure lurraldetik igarotzen direnen kopuruak ere.

Pandemia gorabehera, 2020an eta 2021ean Euskadik 4.809 asilo-eskatzaile jaso zituen (% 42 emakumeak ziren eta % 17 adingabeak). 2022an, nazioarteko babesa behar duten pertsonen fluxuak berraktibatzen ari dira: aurtengo urtarriletik apirilera bitartean, ia 1.287 eskaera erregistratu ziren, hau da, 2021 osoan aurkeztutakoen % 75.

Kopuru horri gehitu behar zaizkio Ukrainako gerratik ihesi iritsi direnak eta, 2001/55 Zuzentaraua lehen aldiz aktibatzeari esker, aldi baterako babeserako mekanismo espezifikoko bat eskura dutenak.

Euskadi, beraz, iheslarientzako igarotze eta iriste leku garrantzitsua bihurtu da. Euskadin geratzen direnen kasuan, duten onarpen eta aintzatespen urriak baldintzatu egiten du haien gizarte-inklusioa ahalbidetuko duen eskubide eta



ALKIZAKO UDALA

zerbitzuetarako sarbidea, eta horrek pertsona asko zaurgarritasun handiko egoeretara bultzatzen ditu. 2020tik 2021era bitartean, Espainiako estatuan nazioarteko babesa aitortu zitzaizen pertsonak % 7 baino gutxiago izan ziren, eta EBn, berriz, % 30 baino gehiago. Arrazoi humanitarioengatik bizilekua baimentzeko bidea Venezuelatik datozenenei ematen zaie ia modu eksklusiboan. Bide honek dokumentazioa eta gizarteratzea errazten ditu, nahiz eta eskatzaileak ez diren errefuxiatutzat hartzen.

Ondorioz, nazioarteko babes-eskaera ukatzen zaien pertsonak (gehienak) zuzenean irregulartasun-egoerara igarotzen dira. Lana izatekotan, berehala galtzen dute. Harrera-sistemaren parte baziren, azkar ateratzen dituzte bertatik (15 egunetan), alternatiba juridiko eta sozialik gabe. Egoera horrek eragin handia du udaletako gizarte-zerbitzuetan eta migratzaileen kolektiboari eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen lotutako beste gizarte-erakunde batzuetan.

Mugei, nazioarteko babesari edo atzerriartasunari dagozkien politikak Estatuaren eskumenekoak badira ere, berehalako premiak tokiko erakundeetan kudeatzen dira, hala nola benetako harrera ematea eta integrazioa eta elkarbizitza aniztasunean gauzatzeko aukera. Autonomia Erkidegoak gizarte-zerbitzuen arloko eskumena du, eta euskal aginte publikoak dira pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten baldintzak sustatzeko eta oztupoak kentzeko neurriak hartu behar dituztenak.

Xede honetan, hiriek eta udalerriek funtsezko zeregina dute. Horregatik guztiagatik, Alkizako Udalak honako hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

- Nazioarteko babesa aitortzeko estandarrak berma ditzala, Europako gainerako demokrazienekin bat etorritz.
- Pertsona guztien asilo-eskubidea ziurta dezala, hauen jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Ukrainako krisiak agerian utzi du, borondate politikoa dagoenean, nazioarteko babesa behar dutenak hartzeko mekanismoak egon badaudela.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonen arreta emateko bitarteko egokiak izango dituen, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez...).



ALKIZAKO UDALA

- *Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege Integrala onar dezala, eta Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako organo independente bat sor dezala, diskriminazioaren biktimei arreta, laguntza eta erreparazioa emateko baliabide nahikoekin eta izaera eta eremu desberdinetako politika eta eragile diskriminatzaileak behatzeko eta haietan eragiteko ere.*
- *Gizaki-salerosketaren Biktimak Babesteko eta Laguntzeko Lege Integrala onar dezala.*

Eta, era berean, gainerako administrazio publikoekin koordinatuta eta bere eremutik, Alkizako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Etxebizitza soziala eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-arloko baliabideak eta dirulaguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea, nazioarteko babes-premiak dituzten pertsonen eta aberrigabeen zailtasunak aintzat hartzen dituzten irizpideak ezarriz, egoera bereziki ahulean dauden pertsonak kontuan hartuta, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeena.*
- *Gizarte-prestazioak eskuratzeko irizpideak ezartzea horien lorpena erraztera begira, eta ez prestazioak etetera bideratuta; esate baterako, jatorrizko herrialdean lortu ezin diren agiriak edo Espainiako estatuan ez dauden senideak salbuestea, izapideak arintzea eta komunikazioa hobetzea.*
- *Enplegu-bilaketa aktiborako sarbidea erraztea, prestakuntza egoki, publiko eta doakoaren bidez, bai tokiko hizkuntzak ikasteko zein etorkizunean enplegua lortzeko aukerak hobetuko dituen prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izateko.*
- *Osasun mentaleko arreta-sarerako edo lan psikologikora zuzendutako taldeetan parte hartzeko sarbidea erraztea, bizi izandako egoera traumatikoetatik errekuperatzen laguntzeko.*
- *Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboiei aurre egitea, prebentzio- eta monitorizazio-neurriak hartuz, eta integrazio-, bizikidetzak-, berdintasun- eta diskriminaziorik gabeko planak eraginkortasunez diseinatu eta inplementatzen direla bermatzea administrazioaren maila guztietan, ikuspegi komunitariotik eta beharrezko aurrekontu-esleipenarekin.*
- *Tokiko biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, errefuxiatuekin eta migratzaileekin batera gizarteratzean eta elkarbizitzan eragiteko, hala nola zurrumurruen aurkako estrategien bitartez.*



ALKIZAKO UDALA

- *Diskurtso arrazista eta xenofoboaren aurkako jarrera irmoa izatea, diskurtso politikoek immigrazioa instrumentalizatzen ez dutela eta gorrotoaren bidez gizarte-haustura sustatzen ez dutela zainduz.*
- *Zerbitzu publikoetan diskriminazioaren eta tratu-desberdintasunaren biktimei arreta ematea.*
- *Memoria historikoaren balioa azpimarratzea, duela ez hainbeste, gu ere erbeste izan ginelako. Orain babesa izatea dagokigu. “*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Udal taldeak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten dute.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.00etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

